



AUMATEGI



18 zbk

2010 Uztaila

ARAU SUBSIDIARIOEN ZATITAKO MOLDAKETA .

Udalak egun indarrean dauden Arau Subsidiarioen, udalerriko hirigintza arauen, hirugarren zatikako moldaketa martxan jarriko du.

Barrundiako zenbait Administrazio-Batzordek egindako eskaerari erantzuteko hasitako lanek pentsatu baino garrantzi handiagoa izango dute. Hemen zenbait kasu aipagarri:

-Moldaketa batzuk Barrundiako Kontzejuren baten despatrimonializazioak gertatzea suposatuko dute, hau da, higiezin baten kalifikazioa aldatu eta salgai jarri ahal izango da. Honek "gaurko jana eta biharko lana" besterik ez dakar, eta hau gutxi balitz, Administrazio-Batzordeen egoera ekonomiko eskasa azaleratzen du. Arazo honen aurrean Udalari akordio bidez higiezinak erosi eta etxebizitza politikak bultzatzea proposatzen zaio.

-2003ko uztailetik aurrera sortutako legeriara egokituriko araudiari dagokionez, (ezarri beharreko legeak Arau Subsidiarioen indarreratzearen ondorengo legeei dagokienez), moldaketa legea murriztaileagoa denean bakarrik gertatuko da. Kontrako kasuetan ez dirudi moldaketarik izango denik.



Buletin honen edukiak:

ARAU SUBSIDIARIOEN ZATITAKO MOLDAKETA	Orr. 1,2
HIRIGINTZA ARAUEN EZARPENA BARRUNDIAN	Orr. 2,3
ZERBITZU MEDIKOA	Orr. 3,4
UDAL INFORMAZIOA	Orr. 4,5
"ZUTIK EUSKAL HERRIA" ORAINA ETA GEROA	Orr. 6

aumategi@yahoo.es

-Gehiengoa duen taldeak ez du ezker abertzaleak egindako proposamen edo zuzenketarik onartu. Udala haiek bakarrik osatzen dutela sinesten jarraitzen dute itxura denez.

-Badira bestalde, zenbait alderdi positibo. Esaterako, herrigunetik kanpo dauden etxeek, herrigunear daudenen tratua antzekoagoa jasoko dute; ondorioz zatitu ahal izango dira. Hala ere, erdi bidean gelditzen da gaia, herriguneko etxebizitzek onura gehiago izaten jarraituko baidute. Hemendik aurrera hobetu arautua egongo den beste gai bat herrigunetik kanpoko eraikuntzena izango da.

Bestalde, zatikako moldaketa hau ez da ezagun diren zenbait akats zuzentzeko aprobetxatuko. Era berean moldaketa hau

ez da etxebizitza politikarik martxan jartzeko erabiliko, ez eta gure udalerrik hainbat herritan aurreikusita dauden SAUR-rak edota makrourbanizazioak desagertarazteko ere, (Eturan izan ezik, kasu honetan jabearen borondatez egingo baita aldaketa). Ez da inolako hobekuntzarik proposatzen ez irisgarritasunari dagokionez, ez eta abeltzain zein nekazariei laguntzeko ere. Estetika gaiei dagokienez, ezer planteatuz gero udal arkitektuaren borondatearen arabera izango da erabakia, gai hauetan bera baita Barrundiako PNV-koei irizpideak jartzen dizkiena.

Ezker Abertzaletik hirigintza planaren berrikusketa orokor bat beharrezkoa dela uste dugu, aldatu beharrekoak asko direlako.

HIRIGINTZA ARAUEN EZARPENA BARRUNDIAN

Sarritan salatu dute Udaletxean Ezker Abertzaleko ordezkariak arau urbanistikoak (planeamenduari dagozkion arau subsidiarioak) ezartzerakoan guztiok ez dugula tratua berdina jasotzen. Batzutan arauak ezberdin interpretatzen dira eta beste batzutan nahierara ezartzeko eskumena hartzen du Udalak. Kasu hauek, gutxi badira ere, oso deigarriak dira.

Jakinarazi nahi dizuegun kasua oso esanguratsua da: Udalak, alkate jaunaren ebazpen baten bidez, Eturan arau subsidiarioak betetzen ez dituen etxebizitza bat eraikitzeke lizentzia eman du. Etxebizitza honek estilo abangoardista izango du, baina hori gustatu edo ez gustatu ez da kontua. Hemen garrantzizkoa zera da, ez dituela indarrean dauden arauak betetzen. Hau guztia, sortuko zuten polemikaren jakinaren gainean zeuden arren, lizentziari egindako berrikusketa errekurtsoaz gain eta gai hau osoko bilkura batean eztabaidatzeko eraman bazen ere.

-Arau subsidiarioen arabera, "Eraikin berriek eta lehendik daudenen aldaketek bere inguruneko ezaugarri nagusiekin bateragarriak izan behar dute, bai diseinuan, bai konposizioan." Interpretazioak interpretazio, udal arkitektuak etxebizitza hau paisaian hobeto integratzen dela dio beste gauza batzuen artean.

-Teilatuari dagokionez, arau subsidiarioek ondokoa adierazten dute: "Edozein modutako eraikinetan, malda % 25 eta % 40 bitartekoa izango dute, estaltzeko materiala zeramikazko teila makur gorria izanik". "

Eraikin nagusiak, edozelan ere, 2, 3 edo 4 isurialde izan behar ditu, eta teilatu hegala faldoi guztietan egongo dira, 50 eta 150 cmko neurrikoak". Honek interpretazio anitzetarako lekurik uzten ez duenez, eta arau subsidiarioak betetze aldera, ezingo litza-teke eraikin hau jasotzeko lizentziarik luzatu aipaturiko etxebizitzak eraikin nagusian ur isurialde bakarra duelako eta teilatua laua edo maldarik gabea delako, gainera ez du hegalik eta teilak izan beharrean jardina du.



[Argazkian eraikinaren fotomuntaia, aipaturikoak argitze aldera]

Honegatik guztiagatik, gure Udala gobernatzen duen taldeak oso zaila izango du ondorengoa azaltzea: nola daiteke batzuk arau subsidiarioak bete ez eta beste batzuei hauen betetze zorrotza eskatzea? Behin onartuz gero, hurrengo bueltan ez da arrazoi ez moralik beste guztiei ez onartzeko.

Hortaz, zera ondorioztatzen dugu, **behar beharrezkoak ditugula Arau Subsidiario logiko eta aplikagarriak, eta behin hauek izanda, herritar guztion betetzea, guztiok modu berean.**

ZERBITZU MEDIKOA

Joan den ekainaren erdi aldera jakin genuen berriro ere Osakidetzak Barrundiako kontsultategiaren ordutegia murrizteko asmoa duela (kontsultategia Ozetan dago eta gure herrietako biztanle gehieni ematen die zerbitzua).

Duela bi urte ordutegia murrizten serioski saiatu zirenean, korporazio osoa eta Barrundiako herritarrak guztiz aurka agertu ziren, eta murrizketa ez zen burutu. Gaur egun, Osakidetzak dio ez duela ordutegia murriztuko Udalaren baimenik gabe.

Barrundian egin nahi zutena Osakidetzaren estrategia orokorra da, eta helburua kostuak gutxitzea da, ematen den zerbitzua kaltetzen bada ere. Osasun-zerbitzuak lehentasuna du, eta publikoa eta kalitatezkoa izan behar du. Horretatik, bereziki min-garria da krisialdi-garai honetan, diru-bilketa txikiagoa denean, boterea kontrolatzen duten politikoei osasunari edo hezkuntzari lehentasuna ez ematea eta, aldi berean, beste erabateko gastuetan inolako murrizketarik edo atzerapenik ez planteatzea.

Horretaz gain, azpimarratu behar da jende askok Gasteizen duela medikua. Barrundian bizi diren pertsonen familiako medikua eskualdearen arabera dagokien kontsultategian izatea da komenigarriena. Osasun-zerbitzua kalitatezkoa izatea eta etxetik gertu egotea ez da pribilegio bat, eskubidea baizik; beraz, erabil ezazu ahalik eta modurik koherenteenean.

UDAL INFORMAZIOA

Haurreskola

Haurreskola izango dena birgaitzeko lanak hasita daude dagoeneko (Udalaren lehengo gizarte eta kultur etxean, Ozaetan). Obrak 106.300 €tan esleitu dira, BEZa aparte.

Barrundiako Haurreskolak gela bakarra izango du, eta 10 haurrentzako lekua. Dagoeneko sinatuta dago Haurreskolen Partzuergoko partaide izateko hitzarmena. Arazoa izan da obra hau dezente atzeratu dela hainbat arrazoiengatik, horien artean, espediente Eusko Jaurlaritzan galdu zelako, eta, ondorioz, baliteke datorren ikasturteko hasierarako zabalik ez egotea.

Web orria

Dagoeneko, martxan dago Udalaren web orria: **www.barrundia.net** Udalaren web orria sortzeko prozesuak luzeegi jo du. Gezurra dirudi kudeatzen hain erraza den gai bat hainbeste atzeratzeak; are gehiago kontuan izanda zinegotzi guztiak ados zeudela legegintzaldiaren hasiera-hasieratik. Web orriaren "domeinua" 2008ko urrian erregistratu zen, eta 2010eko udaberritik aurrera martxan dago dagoeneko. Web orriak, uda-informazioa emateaz gain, Barrundiako administrazio-batzordeen informazioa ere jasotzen du. Martxan jarri ondoren, beharrezkoa da eguneratuta izatea eta herritarrentzat interesgarri diren eduki guztiak sartzeari (kexak eta iradokizunak aurkezteko postontzia barne). Gainera, hizkuntza ofizial biak baldintza berberetan erabili behar dira.



Iduia Jauregia

Joan den maiatzean, Iduia Jauregia birgaitzeko 2. faseko 14. ziurtagiria onartu zen, azkena, alegia. Bigarren fase honen kostua 977.725'12€koa izan da guztira. Horri 6.375 euro gaineratu behar zaizkio; izan ere, EAJren erabakiz, kopuru hori ordaindu zaie arkitektoei, aurrekontuan jasotakoaz gain, beren lana ondo egiteagatik.

Duela gutxi arte, eraikinaren fatxadak konpontzeko lanetan aritu dira (iparraldekoa ez da konpondu, aurrekontua diruz lagun daitekeen zenbatekora egokitzeko).

Borondaterik eza

Normala da zenbait gauza, duten konplexutasunagatik, atzeratzea. Baina beste kasu batzuetan, atzerapena gaiari heltzeko borondaterik ez dagoelako gertatzen da.

Hona hemen borondate ezagatik atzeratzen ari diren hainbat gai:

-Hirigintza-aprobetxamenduaren ordezkapen-balioa merkatuko balioaren arabera kobratzea. Gai hau uda-arkitektoaren txosten baten zain dago. Krisi ekonomikoko garaian, zeinetan batzuetan esaten baita zenbait gauza ezin direla egin dirurik ez dagoelako, oso itsusia da hirigintza-aprobetxamenduaren ordezkapen-balioa egokitu gabe jarraitzea bidezkoa dena kobratu ahal izateko.

-Gainbalioen gaineko zerga kobratzea (zerga honek espekulazioak zergapetzen ditu bereziki). Oraindik ere uko egiten diote zerga hau ezartzeari, baina, aldi berean, ez dute inolako arazorik izan Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren igoera sendoa aplikatzeko, batez beste.

-Zentral eolikoa. Bi urte baino gehiago igaro ziren Eólicas de Euskadi enpresak idazki bati noiz erantzun zain; azkenean ez zuen erantzun. Gaur egun, Gipuzkoako jabeek sinatutako kontratuak ikusi ondoren, gauza jakina da haiek baldintza ekonomikoko hobeak dituztela. Gaia geldirik dago, Foru-Aldundiko zerbitzu juridikoen txosten baten zain. Txosten hori eskatzeak esan nahi du onartu egiten dela bere garaian zentral eolikoa jartzeko baldintzak ez zirela ondo negoziatu; hala ere, legegintzaldiko 4 urteak laster joango dira, eta ahaleginik ere ez da egin bere garaian gaizki egin zena ahal den neurrian konpontzeko.

-Etxebizitza-politika. Gai honek ezin du gehiago itxaron. Ez da zilegi aurrekontuko partidetan etxebizitza-beharrei buruzko inkesta edo errolda bat sartzea eta gero ez egitea. Ezinezkoa da urteak ematea behin eta berriro errepikatuz “Udala ari da etxebizitzaren gaia aztertzen...” edo “aukerak aztertzen ari gara...” edota “gestio batzuk egin dira...” eta gaur egun ezer zehatzik ez izatea. Ezin da aitzakia gehiago onartu, eta gazteak Barrundian bizitzen gelditzea nahi badugu, etxebizitza-politika egitea atzeraezina da.

-Osoko bilkuretako egoera. Gai hau ere, Udala zuzentzen dutenen borondate faltaren ondorio da. Eraso pertsonalak, irainak, erantzuteko aukerarik ez ematea, edozein argudioren aurrean erakusten duten itxikeria eta abar bakarrik gertatzen dira gauzak behar bezala eztabaidatzeko edota beste iritzi edo ikuspuntuei irekitzeko borondaterik ez dagoelako. Horren guztiaren ondorioak, ordea, oposizioko taldeak ez ezik, Barrundiako herritar guztiak ere jasaten dituzte

“ZUTIK EUSKAL HERRIA” ORAINA ET- A GEROA

2009-2010 kurtsu politikoa Euskal Herriko Historian gogoratua eta aipatua izango da, orain guztiok uste duguna baino askoz gehiago oraindik. Jarraian kurtsuari errepasso azkar bat egiten saiatuko gara, izan duen garrantzia azpimarratuz eta aurrerantzean etor daitekeenaz jabetzeko.

Azken negoziazio prozesuaren apurketak Euskal Herriak bizi duen gatazka politikoa konfrontazio parametro gogorrenetara eraman zuen. Testuinguru horretan Estatu espainolaren estrategia argia izan da (beste maila batean frantsesarena ere) konfrontazioan sakondu Euskal Herriko nazio askapen prozesua blokeatzeko, eta paraleloan azken 50 urteotako borrokaren bidez lortutako baldintzak ahultzea.

Hego Euskal Herrian zikloen arteko igarobidean gaudela ikusita, non agorturiko zikloa eta oraindik zabaldu eta ezaugarritu gabeko zikloen artean bizi gara; beharrezkoa genuen eztabaidari ekitea eta egungo egoera desblokeatzea. Zentsu horretan, 2009ko irailean ezker abertzaleak eztabaida prozesuari hasiera eman zion, ezinbesteko dugun estrategia politikoa zehazteko balio izan duena.

Eztabaidaren ondorioak “ZUTIK EUSKAL HERRIA” ebazpenean jaso dira. Esanguratsuen gainontzeko eragileek egingo dutenaren zain egon beharrean, gakoa guk geuk egin beharrekoan dagoela izan da. Eta hausnarketa honen haritik ezker abertzaleak egungo baldintza politikoa eta sozialak probestu nahi izan ditu herriaren aurrean arduraz jokatzeko.

Beraz, fase politiko hau aldatetaren fasea bezala ulertuz, aldebakarreko erabakia izan da prozesu demokratikoa martxan jartzea. Prozesuaren garapenean bestelako eragile politiko, sozial eta sindikalak sar-

tzen joan beharko dira eta aurrerago estatuak sartzerara behartuko ditugu.

Ikasturtearen balantzea egiterakoan, gutxi batzuk aurreikusiko zuten irailan orain ikusten ari garena. Berriro ere ezker abertzaleak iniziatiba politikoa berreskuratzeko gaitasuna erakutsi egin du, eskenatoki politikoa mugiaraziz, baldintza berriak sortuz, elkarlana bultzatuz... Jadanik egoera honen aurrean eragile politiko guztiak birkokatze saiakeran dabilta. Ematen duenez mugiezina zirudien egoera mugitzen hasia da.

Bere garaian esan genuen prozesu demokratikoaren bermea Herrian dagoela eta horretarako Herria aktibatu eta indarrak bildu behar ditugula. Norabide horretan ere ez dira gutxi emandako urratsak eta martxan jarritako ekimenak: independentziaren defentsan INDEPENDENTISTAK sarea; eskubide zibil eta politikoak errepertarazteko ADIERAZI EH; langileriaren alde eta aldaketa sozio-ekonomikoaren defentsan GEHIENGO SINDIKALA, gazteen eremuan GAZTEHERRIA; Euskal Estatuaren sorreran EA ETA EZKER ABERTZALEAREN ARTEKO AKORDIO ESTRATEGIKOA; ...

Nork aurreikusi zezakeen hau guztia kurtsu hasieran? Erakusten ari gara Euskal Herrian egoera politikoa desblokeatzeko eta nazio askapen prozesuan aurrera egingeko baldintza sozial eta politiko nahikoa daudela. Etorkizun hurbilean baldintzak elikatuz, urrats berriak emanez eta norabide honetan sakonduz aurrera egingo dugu.

**ZUTIK EUSKAL HERRIA,
ZUTIK ARABA,
ZUTIK BARRUNDIA!!**